

Arrasate


P R E S S

1995eko
uztailak 21
285. zenb.

ELKARRIZKETA
Edorta
Arana

KIROLAK
Imanol
Etxeberria

OPORRAK!






NEKAZAL
TURISMOA



UNZUETA

JATETXEA eta LOGELAK

Gure berezitasuna parriladak.
ABUZTUAN ZABALIK!



Zabola, Z/g
ARAMAIO (Araba)
Tfnoc: (945) 44 50 95

ALMACENES ARRASATE

- Hozkailuak.....29.500 ptatik aurrera.
- Garbigailuak.....34.500 ptatik aurrera.
- Mikrouhinak.....27.900 ptatik aurrera.
- Laba + plaka.....34.500 ptatik aurrera.
- Sukaldeak.....28.500 ptatik aurrera.
- Telebistak.....27.900 ptatik aurrera.
- Mini kataiak.....14.890 ptatik aurrera.

**UDAKO ESKAINTZA
FRESKAGARRIAK!**

Musakola Auzoa, 26
Kataide Industrialdea - 3. pabilioia
Tfnoc: (943) 77 13 52
Faxa: (943) 77 13 13
ARRASATE



Elkartasun ekonomia da alternatiba?

Orain gutxi Bogotako Santafé hirian Elkartasun Ekonomiari buruzko ihardunaldi batzuetan, oso era dramatikoan aldarrikatzen zen ekonomia alternatibo bat sortzeko premia larria.

Planteiamendu hori ia gizalegeko bizitza batetik eta funtzio produktibotik kanpo dagoen babesgabe tropa berreskuratzeko beharrak sortzen du. Aipatzen zuten Latinoamerikan 450 milioi biztanle daudela, horietatik 200 pobreak dira, eta 60 heriotzaren muga borrokan ari dira.

Emaitzak aipatutakoak dira, eta badirudi kapitalismoak, hazkundera izan ezik, ez duela pobretasuna gutxitzeko beste aukerarik. Baina datoek ezetzatut egiten dute nabaritasun hori, irabazien banaketa desberdinak azkenean gutxiengo bat aberasten du, kontzentrazio oligopolikoa indartzen du eta pobreak oraindik gehiago baztertzen ditu.

Errealitateak ez duela onera egiten ikusita, pentsalari eta soziologoek balizko irteera ikusten dute gizakiek protagonismoa hartuko duen ekonomia modelo batean, pertsonak elkarrekin lanean eta beraiek pertsona bezala erabakiz kapitalaren ginetik. Manifestoak jasotzen ditu, ezin beste era batera izan, kooperatibismoa sortu eta gizarte mobilizazio estrate-

giak proposatzen dituen oinarriak, pobretasunean eta marginatuta bizi diren gizakien gaitasuna eta sormena mugiarazten saiatuz.

Latinoamerikako gizarteak esperantza begiekin begiratzen du Arrasate, ereduaren zentrua, munduaren erreferentzia elkartasun ekonomiaren alternatiba bezala. Ezin da kapitalismoa baztertu, baina bai erantzun modelo berrietatik, pertsonak erabakitako propietatea-gestio batasuna gertatzen den modeloak, ezin bestean aberats eta pobreen gizarte sortzen duen sistema apurtzeko.

Konparazioak egiterakoan ondorioztatzen du batek ez dakigula non bizi garen, gauza txikiengatik softritzen dugula, baina gizakia horrelakoa da, eta, benetan, munduan zehar ibiliz gero ikusten du batek paradisuaren atarian bizi garela.

Ez da erraza taldeak elkartasunezko aukeraketa zuzentzea, guretik kendu eta besteei ematea eskatzen duten modeloetara zuzentzea. Baina denboraz ez bada egiten, pobretasuna eta marginazioaren indarrek aurkituko dute irteera, beti txarra baina ezinbestekoa, gerrilla eta erahiltzailgoa, erahilketa menua eta diru gutxigatik.

JESUS LARRAÑAGA

**GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jateketa**




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoia, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko ilustrazioa: Mario Egües

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

MILARIOK

Taberna-jatetxea
Kafetegia

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz
eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5
behea Tfnoa: 77 01 69

Gemari

Agur, Gema: Jakin bada-
kit ez duzula irakurriko
eskutitz hau, edo bai? Ez
dakit. Ez dakit ere ezta zer-
gatik hartu dudān nire luma
eta hau idazten hasi naizen.
Egia esan, ez dut neurega-
natu dagoeneko ez zaudela,
horrela joan zarela, bapate-
an, erreakzionatzeko astirik
eman barik.

Egunkaria behin eta
berri irakurtzen dut. Ezin da
egia izan. Hankasartze bat
izan behar du. Seguru
inpresoran iratxoren bat sar-
tuko zen eta barrabaskeria bat
egiten ari zait. Zu ez, Gema.
Ezin zara zu izan.

Bihotza apurtzen zait eta
negarrari ematen diot, ez
dakit amorrugatik, ezinta-
sunagatik ala goibeltasuna-
gatik. Baina negar egiten
dut, aspaldian egiten ez nuen
bezala. Patua ez da zuzena.
Gaur bertan eman didate
Madrileko abisua, Naiara eta
zu inolako problema barik ni
bisitatzeraz etortzeko. Eta
hemen nago, hura eskuan
dudala, gordetzeko toki baten
bila, nahiz eta jakin inoiz
ezingo dela izan.

Joan zara Gema, eta elkar
ikusten genuenean lokutorioa
betetzen zuen irrifarrea itza-
li da. Jada ezingo dugu Mañe-
rin afaldu, ez eta ni itzultze-
rakoan txanpain botilarik
edan.

Aldegiterakoan beraien
maitasun osoa elkarrekin bizi
izandako jendearen artean
uzten dutenengandik jasot-
zen omen dute izarrek dis-
tira. Zin dagizut gauero begi-
ratuko dudala zerura zurea
aurkitzeko. Ez zait gehiegi
kostatuko, ezagutu zintugu-
nok harro gaudelako horre-
gatik eta zure izarrek beste-
ak ez bezalako distira izan-
go duelako.

Agur Gema, eskerrak
gure denbora bizitzeagatik
eta zure irrifarra gurekin
konpartitzeagatik. Eskerrik

asko eta egiguzu argi hortik,
zauden tokitik, oraindik gure
ondoan zaudela jakin deza-
gun.

Musu bat.

PAKO

kuntzeko. Baina egun horre-
tan ez zuten zentsura-mozio-
rik aurkeztu eta gainera harro-
keriaz agertu ziren, Arrasa-
teko herriarenganako erres-
peto eskasa agertuz.

Zutik-entzat printzipioz
bidezkoa da alderdiak pro-
grama bateratzeko elkartzea,
baldin eta gutxiengoak erres-
petatzen badira. Baina Arra-
saten egiten ari direna guztiz
onartezina da:

1.- Izan ere HB bazter-
tzeak Arrasateren goberna-
garritasunak baino gehiago
arduratzeko ditu.

2.- Zer konfidantza eman
diezaguke hirukoak, buru jarri
duten EAJko Loiti eurek ere
nahi ez badute?

3.- Izan ere, hauteskunde-
ak izan zirenetik ia hilabete
bi igaro badira ere, oraindik
ez dira akklaratu eta, gainera,
ez dute gobernatzen eta ezta
gobernatzen uzten ere.

Hirukoak adostu zuen
gauza bakarra bilkurak goi-
zez jartzea izan da, hau da, ia
inork joaterik eta/edo parte
hartzerik ez daukanean,
herriari partaidetza eta demo-
krazia kentzeko. Horren arra-
zoia PSOeko ordezkari den
Jimenok argitu zigun, bera-
gatik balitz "goizaldeko 5etan
izango litzatekeela" esanez,
beraz, inor joan ez dadin.

ARRASATEKO ZUTIK

Demokrazia partehartzailea? ...kaka zaharra!!

Horixe da Udalaren bil-
kura-aretoan izan gine-
nok bertatik atera genuen
ondorioa, Udal batzordea-
ren eta organoen eraketa era-
bakitzeko egin zen bilkura-
gatik, zehatzago esateko.

Hauteskundeak izan eta
aste batzuetara, EAJ-PSOE
eta EAk osatutako hirukoa
Xabier Zubizarretari (HB)
alkatetzak kentzekotan zebi-
lela zabaldu zen herrian. Bai-
na bozketan, hirukoaren
barruan dauden 2 lagunek
boto zuria eman zuten, ez zio-
ten EAJko Loitiri eman alka-
tetzak. Elkar iraintzen eta sala-
tzen aritu ondoren eta alder-
di horien buruek euren one-
ra etortzeko agindua eman
ondoren, pentsatzekoa zen
uztailaren 14an zentsura-
mozioa aurkeztuko zutela
hankasartzea nolabait txu-

Oporrak Arrasate Pressen


Eskuartearen duzun 285. zenbaki hau izango da ira-
kurle oporren aurretik etxean jasoko duzun azkena. Izan
ere, zuetariko askori bezala, ARRASATE PRESS egiten dugu-
noi oporrak hartzeko garaia iritsi zaigu. Irailaren 1ean
izango dugu berriko elkarren berri, egun horretan jaso-
ko baituzue 286. ARRASATE PRESSa, oporraldiaren berri
emango duena hain zuzen ere. Ordura arte, eguzkia kon-
tuz hartu, ondo izan eta irailean indarberrituta bueltatu.

Nora zoaz oporretan?



Mentxu Bastardo
Tabernaria
(27 urte)

Lehenengo barnetegi batera joango naiz mintza praktika egitera, eta gero hondartzara lasai egoteko.




Juan M^a Ansuategi
Saltzailea
(39 urte)

Ez noa inora. Arrasaten geldituko naiz lanean, ezin dut oporrik hartu.



Amaia Rekarte
Langabetua
(21 urte)

Saloura joango naiz. Normalean hara joaten naiz eta gainera oso gustora egoten naiz han.



Javier Lazkano
Suhiltzailea
(36 urte)

Errioxara joango naiz, karabanan. Kanping batera noa, iaz ere toki berdinean egon nintzen.



Hipolito Uriarte
Jubilatua
(80 urte)

Etxean geratuko naiz, Arrasaten. Denbora batean Benidorm-era joaten nintzen.



Maite Salaberria
Etxekoandrea
(27 urte)

Donostian geratuko naiz. Donostiarra naiz eta aurten bertara noa, ume txikia daukat eta. Beste urte batzutan Galiziara joan izan naiz.




Tere Olazabal
Jubilatua
(70 urte)

Dagoeneko egon naiz Salou aldean eguzkia hartzen, hemen eguraldia ez delako segurua. Gainera "Park Aventura" ikusi dut.



Anabel Mondragon
Irakaslea
(28 urte)

Lehen kanping-era joaten nintzen; orain ume txikia dudanez hemen inguruan geratzen naiz. Donostian pasatuko dut hile osoa gurasoekin batera.



PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

ABUZTUAN ERE ZABALIK!

ORDUTEGIA:
Lehenengo eta azkenengo astea,
betiko ordutegia,
Beste aste guztiak goizeko
9etatik 3etara.

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA

- Dieta pertsonalizatuak,
- medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igualarioria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko).....77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburategia
 Monterron.....77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 21**
 Egunez eta gauez :Corcuera. Musakola.
- Larunbata 22**
 Egunez eta gauez : Ruiz. Maala.
- Igandea 23**
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.
- Astelehena 24**
 Egunez eta gauez : Azkoaga. Ferrerías.
- Asteartea 25**
 Egunez eta gauez: Español. Iturrioz.
- Asteazkena 26**
 Egunez eta gauez : Español.
- Osteguna 27**
 Egunez eta gauez :Irizar. Erguin.

21 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Te puede pasar a ti" 7etan eta 10etan.
- **ZINE "GORE" ETA BELDURREZKO MARATOI GAUPASA GAZTETXEAN**
 Hasteko laburmetrai sorta (3 ordu): "Evilio vuelve", Mirindas asesinas", "Alicia", "El fotomaton", "Lupo el carnicero". Ondoren luzemetrai klasiko bi: "Mal gusto" (Peter Jackson-en "Bad Taste") eta "Terrorificamente muertos" (Sam Raimi-ren "Evildead"). Gaueko 10etatik aurrera Arrasateko Gaztetxean. AGAk antolatuta.

ZINEAK

Uztailaren 27, 28, 29, 30, 31 eta abuztuaren 1ean "Batman Forever" filmea egongo da ikusgai Alai Zineman. 29, 30 eta 31ean 5etan, 7.30etan eta 10etan eskeiniko da. Gainontzeko egunetan 7etan eta 9.30etan. Abuztuaren 2tik 25era itxita egongo da Zinema.

22 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Casper" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **KONTZERTUA OÑATIKO GAZTETXEAN**
 Bartzelonako "Subterranean Kids", Arrasateko "Brutal Melody" eta Basauriko "Big White" taldeen kontzertua Oñatiko Gaztetxean gaueko 10etatik aurrera. Sarrera: 500 pta.
- **MAALAKO ARRABALEKO JAIK**
 Goizeko 8etan Etxaflueren jaurtiketa. 4etan umeentzat jolasak eta txokolatada. 7etan trikitixa. Gaueko 9etan aforia estradetan. 10.30etatik aurrera Txinparta taldearekin dantzaldia eta 11etan suzko erruberak.
- **EGUNKARIA EGUNEKO KOLABORATZAILEENTZAT AFARIA**
 Egunkari egunean laguntzen ibili zirenek aforia izango dute Zaldibar pilotalekuan. Prezioa: 500 pta.
- **URIBARRIN 24 ORDUKO FUTBITO TXAPELKETA**
 Egurdiko 12etatik domeka egurdiko 12etara futbito txapelketa egongo da jokuan Iturripeko kantxetan

23 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Casper" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **MAALAKO ARRABALEKO JAIK**
 Egurdiko 12etan San Franziskon meza, Arrabalean hil diren guztien oroimenez. Ordubatean jubilatuztientzat Plus-Ultra tabernan luntxa.

KONTZERTUAK ARRASATEKO GAZTETXEAN

Uztailaren 28an ostirala; Gasteizeko "H2 S04" taldearen L.P berriaren aurkezpena eta Gironako "Aspid" taldearen kontzertua gaueko 9etan. Uztailaren 29an larunbata; Berlingo "Musterland" eta Andoaingo "%30" taldeen emanaldia gaueko 9etan.

KIROLDEGIKO UDAKO ORDUTEGIA

Igeritokia astelehenetik igandera goizeko 9etatik 8ak arte egongo da zabalik. Gainontzeko instalakuntzak astelehenetik ostiralera 8.30etatik 9.30etara eta larunbat eta igandetan goizeko 8.30etatik gaueko 8.30etara



24 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Casper" 7etan eta 10etan.
- **BIDEO EMANALDIA AITA MENNIN**
"Uitrella Jacobea Errutako espe-rientzia" arratsaldeko 5etan Aita Menniko Aretoan.
- **SANTIAGO JAIK KORUE-TAN**
Aretxabaletako Korueta auzoan Santiago jaiak. Arratsaldeko 5etan umeentzat jolasak. 6etan VII. Mus txapelketa eta emakumeentzat II. Briska txapelketa. 7.30etan Sari banaketa. 8etan Meza. 9etan Auzo afaria eta gaueko 10.30etan Elkorobarrutiare-kin dantzaldia.

25 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Casper" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **SANTIAGO JAIK KORUE-TAN**
Eguerdiko 12.30etan kanpai errepika. Ordubatean meza. Ondoren luntxa eta bermout dantza Elkorobarrutiarekin. Arratsaldeko 5etan ume-entzat jolasak eta 7etan gaz- tetxoan akordeio orkestraren kontzertua.

ERROMERIA KANPAZARREN

Uztailaren 30ean erromeria Kan- panzarren. Eguerdian Elorrioko eta Arrasateko zinegotzi eta Alkateak elkartuko dira. Ondoren Bolo eta Doke txapelketak jokatu dituzte eta txapelke- tak bukatuta bazkaria izango dute. Bazkari ostean dantzaldia.



24 ORDUKO FUTBITO TXAPELKETA

Uribarrin 24 orduko futbito txapelketa antola- tu dute asteburu honetarako. Zapatuan eguerdi- ko 12etan hasiko da eta domekan eguerdiko 12etan bukatu. Partiduak Iturripeko kanpoko kantxan jokatu dira eta final-erdiak eta finala barruko kantxan. Txapelketako irabazleak garai- kurra, bildotsa eta txanpaina jasoko ditu sari- tzat. Bigarrenak garai kurra, urdaiazpikoa eta txanpaina. Hirugarrenak garai kurra, 5 kilo txule- ta eta txanpaina eta laugarrenak garai kurra, txanpaina eta sorpresa.

26 ASTEAZKENA

27 OSTEGUNA

- **ZINEA**
"Casper" 7etan eta 9.30etan. Ikuslearen eguna.
- **FERRERIAS KALEKO JAIK**
Goizeko 8etan etxafleruen jaur- tiketa. 12etan txistulariekin



URIBARRIKO JAIK

San Bartolome jaiak Uribarri auzoan abuztuaren 24, 25 eta 26an. Osteguna: Goizeko 10etan Suziri jaurtiketa. 11.30etan meza. 12.30etan auzoko jubilatuentzat luntxa. 1.30etan umeentzat buruhandiak. Arratsaldeko 5etan auzoko ezkongabeen eta ezkon- duen arteko futbol partidua Iturripeko Kiroldegian. 6etan pilo- ta partiduak. Lehen partiduan Txikito de Beneras-Ikutixo Bar- bero-Txikuriren kontra. Bigarren partiduan Uribarren-Korta bikotearen aurkariak Errasti-Zubillaga izango dira. 10.30etan bertso saioa. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Solozabal eta Mañukorta eta 12etan Kaixo taldearekin dan- tzaldia.

Abuztuaren 25a, ostirala: 10.30etan umeentzat marrazki lehia- keta. 11.30etan auzoko hildakoen aldeko meza. Ordubatean buruhandiak. Arratsaldeko 4.30etan mus txapelketa. 7.30etan umeentzat buruhandiak. 11.30etan Arizgoiti taldearekin dan- tzaldia eta 11etan bolatokia zabalduko da.

Abuztuaren 26a, larunbata: 10etan suziri jaurtiketa. 11.30etan VII. Uribarriko herri krosa. Ordubatean auzo txikiteoa. 2.30etan auzo bazkaria. Arratsaldeko 7.30etan umeentzat buruhandiak. 11etan Txinparta taldearekin erromeria. 11etan VI. Bolo txapelketa. 12etan errifan zozketa. 1.30etan II. dan- tza lehiaketa. 2etan Gantzontzilo eta kulero lasterketa eta 2.30etan azken traka.

“5.000 kilometrora gestioa egiteak, beste era batera mugitzen diren pertonekin, beste era batera pentsatzen duten pertonekin, hizkuntza desberdinak jarri ditzaketen eragozpenekin... esan nahi du oraindik ahalegin handiagoa egin behar dugula. Mendebaldean bizi garenok, munduan zehar zabaltzen garenean, Mendebaldeko eran pentsatzen dugu, baina sortzen eta garatzen ari diren merkatuak ez dira hain zuzen Mendebaldekoak. Asia izango litzateke adibiderik argiena”.

(...) Internazionalizazioa guretzat, gure negoziarentzat, behar bat zen

(...) Helburu orokorra, Korporazio bezala, orain arte izan dugun internazionalizazio A erritmoa hemendik urte batzutura 2A, 3A, edo 4An bihurtzea da; hau da, garapen maila biderkatu dadila, bai jartzen ditugun medioetan, baita prozesuaren abiaduran ere... une honetan gure exportazioen portzentaia orokorra %35ekoa bada (batzuk gehiago beste batzuk oso urruti), ondorengo 3 edo 4 urteetan gutxienez %50era iritsi beharko ginatete”.

Jesus Maria Herrasti, 1995eko uztaila.

CUADERNOS DE LKS

“Enpresa batek nola bidera dezake bere eginberraren internalizazio egoki bat?

(...) Lehenik kalitatea, orokorrean, ezinbestekoa delako merkatuan sartzeko.

(...) Bigarrenez, behin eta berriz iristen gara ondorio berdinerara: norabide berdinerara doan talde bat.

(...) Hirugarrena, pertsonak.

(...) Laugarrena, gestioaren izaera federalista, nahiz eta eredu jakin baten aldeko jarrera garbia izan.

(...) Boskarrena, teknologiaren laguntza, denbora eta toki jakinetan”.

Julen Iturbe-Ormaetxe, LKSko kontsultorea.


CUADERNOS DE LKS

Zer moduz auzolandegien hasiera?

Joan den astelehenean eman genion hasiera Arrasateko auzolandegiari eta balorazioa egiteko goiz izan arren, hasiera ona izan dela esan dezaket. Dakizuen moduan, Udalan dauden lau karobi eta elurzulo bat berreskuratzea izango da auzolandegiaren helburua. Karobiak eta elurzuloa aspaldi erabiltzen ziren eta guk ahal den neurrian berreskuratu egingo ditugu, jendeak horien berri izan dezan. Gure lana, elurzuloen eta karobien inguruak garbitzea izango da, gaur egun egoera txarrean daude eta. Elurzuloak, adibidez, 16 metroko zuloa du eta zaborez estalita dagoenez, zabor guztia atera eta ingurua ere txukundu egingo dugu. Ondoren, informazio panelak jarriko ditugu, hara hurbiltzen denak horien berri izan dezan. Gure ustez oso interesgarria da elementu zahar hauek berreskuratzea eta nahiz eta erabilpenik ez izan, jendeak horren berri izatea garrantzitsua da.

Auzolandegiak abuztuaren lehen hamabostaldira arte iraugo du, eta denbora tarte honetan lana bukatzea espero dugu. Horretarako bi txanda egin ditugu eta lehen txandan 22 gazte ari gara parte hartzen; guztiok 22 eta 26 urte bitartekoak eta Euskal Herriko nahiz Estatuko beste toki batzuetatik etorritakoak.

Goizez auzolandegietan lan egingo dugu eta arratsaldez, herria eta inguruak ezagutuko ditugu. Horretarako, igerilekua eta beste hainbat azpiegitura gure esku utzi ditu Udalak



Jorge Andueza
Auzolandegiko arduraduna



Kalitate gorena leihoretan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Lutxi Arregi intsumi-soa kartzelaratu

Lutxi Arregi, orain dela gutxi arte Arrasate Telebis-tan lanean aritu den elgoibartarra, Martuteneko kartzelan dago joan den ostegunetik. Arregi eta beste lau intsumiso Martuteneko sarrerara gerturatu ziren eta epailearen kartzelaratzeko agindua aurkeztu ondoren, lau espetxeratu egin zituzten eta intsumiso bat aske utzi zuten.

Udalekuen bigarren txanda

Astelehenean hasi ziren Txatxilipurdik antolatutako bigarren hamabostaldiko udaleku irekiak. Uztailaren bigarren txandarako izena eman duten 170 gazteek, hilaren bukaera arte udalekuetan egiten diren ohiko ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute. Lehen hamabostaldian izan diren 400 gazteendako, berriz, joan den ostiraletan amaitu ziren udalekuak. Amaiera ona emateko, arrasateko Txinparta taldearekin dantzaldia izan zen herriko plazan.


Musika kontzertuak

Ez zen jende larregi izan astebukaeran Gazte-txean izan ziren kontzertuetan. Zapatuan "El desván del macho" talde arrasatearrak jo zuten.



Deba errekaen berreskurapena eskatuz

Urtero moduan, inguruko herrietako hainbat lagun Debara joan zen joan den igandean, Deba errekaen berreskurapena eskatzeko. Ekintza horretako partaideek salatu zuten, "errekak kutsatuta egotearen ardura politikoena da, ez dute eta erreken berreskurapenean pezeta bakar bat gastatzen". Errekak ez kanalizatzea ere eskatu zuten.



Jai giroa Santamainan

Ostiraletik domekara bitartean, jaiak izan ziren Santamaina auzoan. Zapatuan, auzoan ezaguna den bolopalma txapelketa burutu zen. Bolo-palma, bolotan jokatzen beste era bat da eta Bartzelona aldean ezaguna da. Horretaz gain, futbito, mus eta tute txapelketak ere egin ziren. Jubilatuendako ekintzak ere zapatuan izan ziren. La Merced-eko elizan meza entzun ondoren, bertako jatetxean bazkaldu zuten eta arratsalde partean dantzaldia izan zuten.

Arrasatearrak Julio Iglesiasen kontzertura

30 sarrera saldu ziren Arrasaten Julio Iglesias kantari ezagunak domekan eman zuten kontzertura joateko. Hamabi herritar antolatutako autobusean joan ziren Mendizorrotzara eta gainontzekoak bere aldetik. Julio Iglesiasek "La Carretera" diska berria aurkeztu zuen.

JAIOTZAK

- Maider Azkarraga-Urizar Arana. Uztailaren 7an.

EZKONTZAK

- Francisco Javier Bengoa Ugarte eta Miren Zorione Arregi Barrainkua. Uztailaren 8an. Zibilez.
- Ricardo Ercilla Altuna eta Maria Carolina Arribas Alvarez. 15ean. Zibilez.
- Alejandro Zabala Martinez eta Miren Pilare Fernandez de Arroyabe Aranguren. 15ean. Zibilez.

HILDAKOAK

- Aurelia Garcia Agirre. Uztailaren 7an. 76 urte.
- Juana Leturia Mendiaraz. 10ean. 92 urte.
- Antonina Moneo Arnaez. 8an. 78 urte.
- Narcisa Arrondo Murua. 8an. 80 urte.
- Pedro Iparragirre Saizar. 11n. 77 urte.
- Gema Ruiz de Azua Ibabe. 10ean. 42 urte.

MARKO-JARTZEAK



ALDEDI


Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

Elektroinjekzio Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



* Jabier Ozaeta

AED bizikletaz Euskal Herrian zehar

Aurtengorako ere, AEDtik oporretarako aukera bat eskaini nahi izan zaie Iparralde ezagutu eta oporraldi bat euskaraz bizi gura dituzten gazteei. Orain artean Kanbon pasatu izan ditugu abuztuko lehen 15 egunak, baina ikusirik hango lanak itxura baten menperatuta daudela, aurtengoan abuztuan langabezian geroak arriskua zegoen.

Ikastolak konpontzeko lan ezak, oporretako plana izorratzen zigun printzipioz. Nola konpondu ordea hango

eta hemengo gazteek elkar ezagutzeko duten nahia eta elkarren ezagupen sakon baten aukera?

Bizikleta martxa izan da erantzuna, eta horren bitartez ondorengo helburuak bete gura dira:

- Udarako alternatiba bat sortu, modu merkeen eta lagunartejator eta euskaldun batean pasatzeko.

- Iparraldeko eta hegoaldeko jendea elkartu eta egon daitezkeen "muga" psikologikoen haustura lortzea.

- Hegoaldeko Iparralde ezagutu dezagula, berta-

ko jendea, ohiturak, berbera eta bazterrak hurbiletik disfrutatuz.

Ez dira ez helburu gutxi, bizikletaren sillin ganean betetzeko eta ziur gaude bide onari ekin diogula aurrez pentsatutakoa betetzeko. Oraingo falta duguna eguraldia lagun izan dezagula, bidaia beharreztanik gabe burutzea eta bidaiaren zirrarak sillinak eragotzi ipurdiko mina ahaztarazi diezagula da. Guzti hori lortzen dugunean, mailo larua jantzita etorriko gara denok.

* AEDKO PARTAIDEA

USTEAK USTE

Diren garaiak izanik gehienok maletak prest eta, hala behar duzuenok, bileteak poltsikoan izango dituzuelakoan nago, izan ere oporrak gainean dauzkagu eta.

Eta ondo merezitako oporrak esango nuke, gehienetan behintzat. Hori bai, modu batean edo bestean erabili bakoitzaren esku izango da: batzuk atsedenean, bazterren baten lasai pasatuko dituzte; beste batzuk aldiz, gertuago edo urrutiago dauden bazterrak ezagutzeko aprobeztatuko dituzte; urtean zehar egin ezin izan duten hainbat gauza egiteko beste batzuk: libururen bat irakurri, kirola egin... izango da ere jaietako zirkuitoa egiteko aprobeztatuko duenik edo, inora joan gabe, "herria zaintzen" geratuko dena ere. Denetarako aukera ematen digute oporrek, eta bakoitzak geure erara aprobeztatzea besterik ez dugu.

Dena den asko dira oporretan joan ezin dutenak, edota "behartutako oporretan" nolabait esateko daudenak, ea hauek ere igartzen duten asti gehiago dugula, bai idazteko, bisitatzeko etab.

Bestalde, oporretan heritik kanpo joaten zaretenok eta animaliarenekin baldin badaukazue etxean, ez bertan behera utzi. Ezin baduzue zuekin eraman, bakoitzak ikusiko du zein irtenbide eman, egon bada eta, ez baitaukate hainbaten axolagabekeria zertan, euren bizitzarekin ordaindu beharrik, txakurtegia edo kotxeren batek harrapatuta.

Honetaz gain kontu izan mendietan egiten diren suekin, ondo itzali duzuela ziurtatu eta betikoa, arretaz gidatu.

Eta guzti hau kontuan izanik, ondo pasa eta indar berrituta itzuli, irailetik aurrera ere eguneroko jardunean aritu behar izango dugu eta.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA



Asteazken hirukoak bilerak egin ditu erabaki bat hartu asmoz.

Arrasateko Udala, erdi geratuta eta erdi eratuta

Joan den ostiralean egin zen plenoan Udala guztiz antolatu barik geratu zenez, datorren astelehenean beste bat egingo da. EAJko J.M. Loitik ostiraleko plenoan esan zuenez, "gure artean bilerak egingo ditugu zer egin erabakitzeko". Legeak, bestalde, Udala eratzeko pleno bat baino gehiago egin daitekeela esaten du. Alkateak, beraz, beste pleno bat deitzea erabaki du hirukoak zer egiten duen jakin eta Udala behin betiko antolatzeko.

EAJk, PSE-EEk eta EAK bakoitzak bere aldetik edo hirurek batera erabakirik hartzen ez badute, alperrik izango da plenorik egitea. Nahiz eta hiru alderdietako exekutiba probintzialesk zuzentzen lehena hama bostaldian zentsura mozioa aurkeztu behar zutela agindu, hirukoak ez du oraindik Udalera moziorik eraman. Euren artean batzarrrak egiten dituzten arren, EAko zinegotzi batek esan bezala "bilera asko eta erabaki

gutxi". Hiru alderdi horien jokaeraren helburua, Udalaren funtzionamendua oztapatu eta horri irtenbidea emateko iraillean mozioa aurkeztea izan daiteke edo eurak esan bezala, "programa bateratua egitea".

Ostiralean Batzorde Informatiboak eratu ez zirenez eta ondorioz gaiak plenora eraman ezin direnez, Udala erdi geldirik dago. Bitartean, Alkateak berari dagozkion erabakiak har ditzake (obra lizentzia txikiak) eta Gobernu Batzordeak (HB eta EBak osatuta) ere berdina egin dezake beraren ardurakoak diren gaiekin. Egoera hori salatu zuten HBk eta EBak ostiralean egin zen plenoan eta Udalean "plenoak lehenbailehen erabaki beharreko hainbat gai daudela" gogoraziz. Ezker Batuak, gainera, idatzi bat kaleratu du Udaletxean alde lan egiteko gertu daudela eta ostiralean Alkateak egindako izendapenak horren arian ulertu behar direla esateko.

Ertzaintzaren aholkuak oporretarako

Oporretara doazenez kontuan izan behar duten hainbat gauza gogorarazi ditu Ertzaintzak, badaezpada ere. Ohiko etxebizitza utzi behar dutenek zera egin behar dute: etxeko sarrera guztiak ondo itxi; ez utzi etxeko giltzak inork hartzeko moduan; argindarra, ura eta gasa moztu; senide bati non egon zaitzkeen esan; baliozko objektuak gorde; ez komentatu ezezagunen aurrean kanpora noiz irten behar duzun eta ez utzi notarik atean edo abisurik erantzungailuan. Ibilgailuarekin bidaia hasi baino lehenago: trafiko geltieneko egun eta orduak ebittatu; ibilgailuaren segurtasun elementuak aztertu; alkohola edatea eta larregi jatea ebittatu eta nekatuta sentitzen bazara gelditu. Guzti horretaz gain, kreditu txartelak galdu edo lapurtuz gero, segituan horren abisua eman behar da.

Abaroako taberna eta ileapaindegia


Abaroa Zahar Etxeko taberna eta ileapaindegia adjudikatzen lehiaketa kaleratu du Arrasateko Udalak. Zerbitzuren baten ardura hartu nahi duenak, Udaletxeko idazkaritzan aurkeztu behar du eskaerak, abuztuaren 7a baino lehen. Informazio gehiago nahi duenak, Gizarte Zerbitzura jo dezake.

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



Garibai etxearen ondoan ipiniko dute turismorako puntua.

Irailean jarriko dute turismorako zerbitzua herrian

Deba Garaiko Mankomunitateak Arrasaten, Oñatin eta Bergaran jarriko duen Turismorako Informazio Zerbitzua, irailera arte ez da zabalduko. Herrian, turismorako puntu hori Garibai etxearen ondoan jartzea erabaki da. Gaur hiru udalerrri horietako arduradunek, Eskoriatzako Irakasle eskolan helburu horrekin prestatu duten tresneriaren berri izan dute. Bi modelo egin dira, bata zerbitzua kalean jarriko dutenendako eta bestea, aterpean jartzea erabakitzen dutenendako. Zerbitzu horrek dirua ateratzeko makinan antzera funtzionatuko du. Ordenagailuak Arrasate eta inguruko herrietako zerbitzuen eta informazio turistikoaren berri emango du.

Informazio hori hizkuntza desberdinetan jaso ahal izango da.

Abuztuko obrak

Herria erdi utzik geratzen dela eta, abuztua hile ona izan ohi da herrian konponketak egiteko. Aurten hala ere, gauza gutxi egingo da. Hirigintzako lanei dagokienez, Umezaintzako eta Garibai etxeako teilatuak eraberrituko dira. Umezaintzako konpontzeko onartuta dagoen 1.708.719 ptako aurrekontua erabiliko da. Garibaikoa konpontzeko ere aurrekontua zehaztuta dago baina Gobernu Batzordeak obra adjudikatzea falta da. Horrez gain, Udala plazan ur sarea jartzeko asmoa dago.

Arrisku Soldatarako dirurik ez

Gipuzkoako Diputazioak ez du aurten Arrisku Soldata programa diruz lagunduko. Hala ere, Arrasateko Udalean enpresa bat aurrera aterahi nahi dutenei laguntza emateko asmoa dago eta horregatik, proiektuak aurkezteko epeak zabalik jarraitzen du. Oraindik ez dago erabakita zein laguntza mota emango den baina baliteke Udalak formazioan laguntzea edo aholkularitza ematea.

Enplegua Sustatzeko programaren barne, lau kontratazio egiteko dirulaguntza emango du Foru Aldundiak. Arrasateko Udalak lau teknikari kontratatzeko eskaria egin du: galdaragaina, peoia, arkitektua eta dokumentalista.

Ur eta zabor-tasa

Irailaren 15era arte zabalik izango da, 1995eko bigarren hiruhilabeteko ur eta zabor tasaren ordainagiriak ordaintzeko epea. Ordaintzen ez diren ordainagiriak %20ko galkarguarekin kobratuko dira.



URONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Malagako **Ronda herrian Mondragon** izeneko jauregi bat dago. Jauregia Abomelic Rondako erregeak eraiki zuen XIV. mendean. XVI. mendean Melchor Mondragonek berriztu zuen. Jauregian Errege katolikoak bizi izan ziren, 1485an Rondako errekonkista zela eta, Fernando erregea bizi izan zen eta 1501an Moriskoen matxinadaren ondoren, Isabel eta Fernandoren bizileku bihurtu zen.



IZEN PROPIOAK

● **Marta Izagirre** 29 urteko atxabaltarra Arrasate Musikaleko lehendakari berria da. Martak piano ikasketak egin ditu eta Jose Ramon Vitoria ordezkatu du.

● **Elena Kortabarria** 32 urteko Oñatiarra Iturbide Egoitzako behin behineko zuzendaria da. Elenak Gizarte Laguntzailea ikasketak dauzka eta Udaletxeko Gizarte Zerbitzuko arduraduna da.

● **Zuriñe Velez de Mendizabal**, 13 urteko arrasatearrak bi domina lortu zituen uztailaren 15ean eta 16an Casteldelfes-en (Kataluñan) egin zen Espainiako Eski Nautiko txapelketan. Slalom sailean brontzezko domina lortu zuen eta Figuras sailean zilarrezkoa.

● **Inaxio Kortabarria** 45 urteko arrasatearra, Erreal B.ko entrenatzaile berria da Rafa Mendiluzekin batera. Inaxio urte luzez Errealeko jokalaria izan zen, ligako bi titulu eskuratu zituen eta Euskadiko Selektzioaren bultzatzailetarikoa izan zen.



Uztailaren lehen zapatuan Arrasateko emakume hauek ikasturteko bidaia egin zuten. Umeak zaintzen dituzte eta egunero elkar-


tzen dira kafetxoa hartzeko. Aurten Santanderko Cavarceno parke naturalean izan ziren eta bueltan Bilboko Zortziko jatetxe-

an afaldu zuten. Nola pasa zuten? bada primeran, dagoeneko datorren urteko bidaia prestatzen ari dira, pentsa!

● **Txitxinpe** ●
 Berezitasunak:
 Kafea, ardoa, urdaitegia,
 fruitu lehorrak
 Arrasate Pasealekua, 33
 ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

PEUGEOT
 Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
 MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
 Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

HIES EKIMENA
 Astelehen, astearte
 eta ostiral
 5etatik 8etara.
 Tfnoa: 79 26 99




Luis Mari Iriando 11 urtez Iturbide Egoitzako zuzendaria izan ondoren, jubilatu egin da. Luis Mari elgoibartarra da eta Arrasaten bizi izandako esperientzia oso positiboa eta aberasgarria izan dela esan digu. Iturbide Egoitzan lagun handiak egin eta era guztietako anekdotak bizi izan ditu, beraz, jubilatuta egon arren, Gabonak arte ez du egoitza utziko.



Nerea Zubiete irratiko lankidea Jose Migel Zubillagarekin ezkondu zen zapatuan. Gatzako

Udaletxean ezkondu ziren eta Gure Ametsan egin zuten afaria. Zorionak!



Argazkian duzuen usoa Loretxo Altubek hilda aurkitu zuen Aretxabaletako Larriño auzoan. Uso bat hilda aurkitzea ez da albistea baina uso honek badu berezitasunik. Ezkerreko hankan **bi**

anilla ditu eta eskumakoan txapa bat. Usoak Identifikagarri horiek ditu orientazio lehiaketaren batean parte hartu duelako, eta jakin izan dugunez frantziarra izan daiteke.



Angel eta Elena Aretxabaletako Udaletxean ezkondu ziren ekainaren 17an. Osintxun izan zuten bazkaria eta ezkon-bidaian Madeirara joan dira. Zorionak!

LASO-ARREGI

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

● *Edorta Arana*

Telebista informatiboak tesian

Ekainaren hasieran "Gizarte eta nazio erre-presentazioa telebista-albistegietan" izenburuko tesia aurkeztu zuen Edorta Aranak Leioako Euskal Unibertsitatean. Harrez gero, komunikabide askotan agertu da, bere tesiak interes handia sortu baitu

- Zenbat denbora pasa duzu tesia egiteko?

- Lau urte, eta azkeneko ez gogorik, ez indarrik ezertarako... Lan honek fase desberdinak izan ditu: informatiboak grabatu, dena transkribitu, transkribitutako datuak fitxatan sartu, mota bateko 2.600 fitxa, beste bateko 900, beste modu batekoak 1.500. Datu danak gero ordenadorean sartu, behin han, estadistikoki antolatu... 800 orriko liburua azkenean.

- Metodikoa esan behar tesia egiteko...

- Esango nuke baietz, baina ni neu ez naiz batere metodikoa eta egin dut. Horrek apur bat harritzen nau, atzetik lanordu piloa ditu hala ere.

- Eta lanaren helburua?


- 1982an ETBn lanean hasi nintzenean, planteamendu garbia zegoen, Euskal

Herrian oso beharrezkoa zela ez bakarrik euskaraz emitituko zuen kate bat, baizik eta euskal ikuspegitik gauzak egiteko asmoa zukeena. Euskal bertsioa edo euskaldunen bertsioa eman beharra zegoela aipatzen zen. Alde horretatik argi dago bertsio diferentek zeudela, eta nik banuen kezkarik: hori gerta dadin zeintzuk dira funtsezko elementuak? zertan oinarritzen dira diferentziak? Horretarako aztertu nituen albistegietan agertzen den informazio idatzia, irudiak, eta irudietan agertzen diren pertsonaiak.

- Eta zeintzuk dira ondorioak?

Urte beteko eguerdietako Telenorte, Teleberri eta TeleNavarrako informatiboak aztertu ditut, eta argi ikusten da urtetik urtera gauzak ez direla gehiegi aldatzen, parametro antzerakoak ematen direla. Patroi orokorren artean oso indartsua da instituzio politiko-administratiboaren presentzia: gobernu zibila, diputazioa, jaurlaritza, ur kontorzioak, kutxak... horiek dira nagusi hiru albistegietan.

Hiru kateetan berdintasuna markatzen duten elementuak daude: agente modura instituzioak eta gai modura politika eta ekonomia dute



garrantzia. Jerarkia soziala oso markatuta dago, herritar normalak ez dira agertzen sekula ezer egiten, betik dira goitik datorren zerbaiten destinatarioak.

Aipagarria da oso garbi dagoela albistegietan zein den marratzen den gizarte balorea: androzentrikoa da, gizonezkoak besterik ez dira agertzen; lan-adina 18-25 urte bitartekoa, zaharragoak eta gazteagoak ez dira agertzen edo oso gutxi; urbanoa, herri txikiak ez dira notizia.

Kazetaria protagonista eta aldi berean bozeramale da, besteek esandakoa biderkatu egiten du, baina prozesu horretan sujeta aktibo bihurtuta. Bisagra lana egiten du, instituzioengandik sortzen den informazioa legitimatu, herriarengana hurbildu eta janarazi, beti neutraltasun eta objetibotasun itxura emanez.

- Zertarako balio dizu lanak?

- Aurrez nituen susmoak baieztatzeko, Teleberri, TeleNavarra eta Telenorteri buruz nituenak. Gainera, esan behar, unibertsitateko irakasleok irakatsi eta ikerketa egiteagatik kobratzen dugula; eta hortan dihardugunok demostratu egin behar dugu ikeritzeko ahalmena, lan bakar eta sakona eskatzen duen tesia egiteko ahalmena.

- Kazetari lana egin zenuen, orain irakasle zara, zergatik?

- Klaseak ematea gustatu egiten zait, hasteko; bestetik, Unibertsitateak kazetariaren eguneroko lana aztertu eta nola egiten den ikusteko patxada ematen du, eguneroko lan dinamikan sartuta egon barik.

- Eta orain zer egin behar duzu tesiaz?

- Hitzaldiak emateko aukera eskaintzen dit, 800 orriekin liburua argitaratuko dut, UEU n egon naiz, Txilera noa...

● ***"Hiru kateetan berdintasuna markatzen duten elementuak daude: agenteak instituzioak eta gaiak politika eta ekonomia"***

Oporren fenomenoa

“Aldi labur baterako lanetik aske, libre gertzeari deitzen zaio” esaten du hiztegiak, denok gustoko dugun hitza definitzerakoan. Garai honetan eta urtero urtero jende guztiaren ahotan izaten den gaia da hau, baina dudarik gabe, oporrak, hiztegiak ematen duen definizioa baino askoz erakargarriagoak dira.

Oporren erakargarritasuna norberaren eskuetan izaten da, lanetik aske izaten garen denbora horretan, atsedena, lana, arriskua edo eta abentura bilatzen baitu pertsona bakoitzak. Bikotearekin, lagunekin edo bakarrik, penintsulan edo atzerrian, mendian ala itsasertzean, bizikletan, kotxean, itsasontzian, hegazkinean edo trenean... hamaika modutan dago oporrak igarotzeko eta bueltan, poltsikoetan xoxik ere geratzen ez ei den arren, gutxi damutzen dira gastatutakoaz.

Oporren fenomenoak jende guztiarengan du eragina eta aukera asko dagoenez, zaila izaten da norberaren gustoko oporrik ez aurkitzea. Jarraian doazkizuenak, ohiko oporrez gain



Oporrak pastzeko ere diferenteak daude: brigadak, auzolandegiak, kanping-a...

inguruan ditugun beste aukera batzuk dira.

AUZOLANDEGIAK

Urte osoa lanean aritu ondoren, oporretan lan gehiago egin nahi dutenentzat izaten dira opor hauek. Baina noski, auzolandegietan egiten den lanak, ez du antz handirik urte osoan zehar egiten denarekin. Oporrak igarotzeko modu hau oso zabaldua dago mundu osoan zehar, eta gainera prezio nahiko merkea izaten du.

Lana egitearen truke, lagun berriak egin, kultura berri bat ezagutu, eta elkarrekin bizitzeak dakarren esperientzia jaso eta ikasi egi-

ten da auzolandegietan. Era ezberdineko auzolandegiak daude: arkitektura ondarearen berreskurapenean oinarritutakoak, arkeologi aurkikuntzetan burutzen direnak, habitata naturala babesteko ekintzetan oinarritutakoak eta azkenik, gizartearendako auzolandegiak; azken hauek inguruko herri zein auzoetan integratzen lagundu dezaketen ekintza eta ihardueretan oinarritzen dira auzolandegiko ekintzak.

Gertuenetik ezagutzen ditugunak Arrasateko Udalak eta AEDk antolatutakoak dira: Arrasateko Udalak, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean

Udala auzoko Ingurugiro Eskolan antolatzen ditu auzolandegiak eta bi txandatan daude banatuta. Egun hauetan lehenengo txanda dago herrian: 19 partehartzaile eta 3 begirale ari dira hiru karo bi eta izoztegi zahar bat berregiten. EHTik, Galiziatik, Guadalajaratik, Madrildik eta Kataluniatik etorri dira lehenengo txandakoak. 8.000 pta ordaindu dituzte.

AED elkarteak, berriz, Iparraldean eta Araban antolatu ditu auzolandegiak: Lapurdiko Kanbon, Behenafarroako Baigorri eta Ara-



herri bakoitzeko egoera politiko eta kulturala jakitera eman eta bertan egin behar duten proiektua brigadistei azaltzea da. Brigaden prezioa 140.000 ptakoa da.



“KIROLA ETA ABENTURA”

Hala deitzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak 1995erako antolatu duen udako opor kanpaina. Hamezortzi eta hogeitabederatzi urte bitarteko gazteei daude zuzenduta kanpaina honetako ekintzak eta izenak dioen moduan, abenturan oinarritzen dira batipat. Azkenaldi honetan oso modan dagoen oporrak dira hauek.

Kirol eta abenturazko egonaldiak, ibilaldi kulturalak eta hizkuntz egonaldiak eskaintzen dira kanpaina honetan. Egondion iraupena astebetetik hamabost egunera bitartekoa da eta prezioak 24.000tik 42.000 ptarakoak.

Kirol eta abentura egonaldiak eta ibilbide kulturalak, Belaguan, Zamoran, Huescan, Costa Bravan, Frantzia, Asturiasen, Caceresen eta EHan bertan burutzen dira. Kirol eta abenturako egonaldietan eskaladarako hastapenak, puentinga, senderismoa, raftinga, sakanetatik behera jaitea, rapela, mountain bike ibilaldiak, eskalada, mendi igoerak, windsurfa, trekkinga, hipika, bela eta orientazioa egiten dira besteak beste. Ibilbide kulturaletan berriz, Erdi Aroko Frantziatik barrena Le Puy-tik Santiago Konpostelaraino bidea eta Caceres, Salamanca-ko probintziatik gertu dagoen alderdi batean, Monfrague-ko parke naturalaren inguruan bidea egiten da.

Noski, hauez gain, bada oporrak pasatzeko beste mila modu eta argi dago, norberak bere gogoaren arabera aukeratzeko duela lanetik aske geratzen garen egun eskaz hauek igarotzeko modua.



antolatzen ditu ere. Hauen iraupena 15 egunetik hilabetera izaten da eta prezioak, Europakoak 46.000tik 75.000 ptara bitartean eta Europatik kanpokoak 50.000tik 300.000 ptara.

Bestalde, bada urtebeteko iraupena izaten duen auzolandegirik ere. Auzolandegi hauek IJGD izeneko Nazioarteko Gazte Elkarteak antolatzen ditu eta bertan, gizarte lanak egiten dira. Lanaren truke soldata bat izaten da eta baita 26 egunetako opor tarte bat ere.

Auzolandegietan parte hartzeko bete behar izaten diren baldintza bakarrak, gaztea izatea eta lan egiteko gogoz joatea da.

BRIGADAK

Komite Internazionalistak eta Askapenak antolatzen dituzte: aurten Guatemalan Nikaraguan, Salvadorren, Kuban, Mejikon, Ekuadorren, Irlandan eta Palestinan izango dira. Brigaden helburua egoera politiko gatazka-

tua bizi duten herrietan talde marginatuei laguntzea da. Bestalde, turismorako astia ere izaten da opor hauetan.

Brigadak uztailan, abuztuan eta irailean zehar izaten dira eta hilabete osoko iraupena izaten dute. Guatemalan CPR eta CCPPkoei lagunduko zaie; talde honetako partaideak 1983an mendira alde egin zuten bizitzera eta orain hirira bueltatu dira berriz ere. Bertako ejerzitoarekin gatazkak dituzte eta brigadisten lana bi taldeen arteko harremana erraztea izango da. Nikaraguako brigadistek Matagalpa inguruan egingo dute lan UNAG eta “Benancia” emakume taldearekin. Salvadorrera joango diren brigadistek berriz, FISekoei lagunduko diete: zubi bat konpondu eta denda komunalak eraikiko dituzte. Kubako brigadetan, bertako Botere Popularrarekin batera, zaharren etxe bat berriztuko da.

Dena dela, brigadetara joan baino lehen talde antolatzaileak tailer batzuk antolatzen ditu brigadista joan behar dutezentzat. Tailer hauen helburua

bako Garaion. AEDko auzolandegiek euskeraren alde lan egiten duten instituzioei laguntzea dute helburu eta prezioa 15.000 ptakoa da.

Badira ere “Nazioarteko Auzolandegiak” deitzen direnak ere. Hamazortzi urtetik gorako gazteei zuzenduta daude. Adibide gisa WWF (Naturaren Aldeko Mundu Fondoa) taldeak antolatzen dituenak. European antolatzen dituen auzolandegiez gain, Kamerun, Senegal, Tunez eta Asiako Irla Maldivasetan

Imanol Etxeberriaren erronka berria Bilbao Athletic taldean

Imanol Etxeberria 22urteko atezain arrasaterak Bilbao Athletic taldean jokatu du datorren denboraldian. Zilarrezko mailako talde batean jokatzeko ez zuen espero, beraz, sorpresa handia eta atsegina izan da Imanolentzat. Atezain gazte hau 10 urterekin hasi zen futbolean jokatzeko Xaramela taldean, erdilari lanetan ibiltzen zen. Jubeniletan Mondrara joan zen eta Ohorezko Ligara arte, bertan erakutsi zuen erakutsi beharrekoa atezain postuan. Mondratik UDARA, baina Aretxabaletako taldean urte bete baino ez zuen iraun. Iñaki Zeziagak Mondrako atea babesteko deitu eta Josu Urzelairekin batera Mondrako atea zaindu zuen. Baina Imanolek ez zuen Arrasateko taldean jarraitu, berriro UDARA joan zen eta hortik Durangora. Azken denboraldia Durangoko Kultural taldean eman du.

- Pozik zaude Bilbao Athletic-en jokatu behar duzualako?

- Oso pozik nago ez nuen espero eta Bilbao Athletic taldean 2. A mailan jokatzeko. Iaz Durangoko Kultural taldeko atezain titularra izan nintzen eta denboraldi bikaina egin genuela esan behar dut. 3. mailan gol gutxien jaso nuen atezaina izateaz gain, 3. mailatik 2.B mailara igotzea lortu dugu.

- Bilbo aldera joateko beldurrik baduzu?

- Beldurra baino errespetoa, eta ilusio handia Bilbao Athletic



taldean jokatzeko. Hala ere, taldean leku bat izateko jakin badakit lan asko egin behar dudala, baina horrek ez dit beldurrik ematen.

- Denboraldi honetan zuk jokatuak partiduak ikusten Iribar egon da, zer sentitzen da Iribar ikusle dagoela jakitean?

- Egia esateko urduri samar jartzen zara, baina pozik era berean. Iribarren begiradapean egotea atezain batentzat oso betegarria da.

- Bilbao athletic-en Manolo Sarabia izango duzu entrenatzaile. Nolako da?

- Ez dut pertsonalki ezagutzen baina gogorra eta langilea dela entzun dut.

-Zure burua titular ikusten duzu?

- Hiru atezain berri gaude. Beraz, lana ondo egiten badut titular izan naiteke. Dena dela, hiruron arteko lehia gogorra izango da guztiok onena ematen saiatuko gara eta.

- Durangotik Bilbao Athletic-era aldaketa handia, ezta?

- Aldaketa handia zalantza barik eta asko igerriko dut. Entrenamen-

duak oso desberdinak izango dira, Lezaman atezainekin lan asko egiten dute, Iribar arduratzen da horretaz. Bidaia ere luzeak izango dira. Bigarren A mailan gauza hauek normalak dira eta beste jokalariek batzuk bezala erritmo horretara ohituko naiz.

- Zure etorkizuna futbolean ikusten duzu?

- Zaila da hori erantzutea, baina zortea badut eta gauzak ondo iriteten bazaizkit, zergatik ez?

- Gipuzkoar bat Bizkaian, Athletic zalea zara?

- Zalea zalea, ez dakit. Betidanik Real eta Athletic izan ditut gogoko baina orain Athletic-ak fitxatu nauenez Athletic zalea izan behar nahi eta nahiez.

-Atezainen artean baduzu idolorik?

- Idolo zehatzik ez dut. Atezain bakoitzak bere gauza onak ditu. Nire gogokoak Arkonada, Buyo eta Zubizarreta dira.

- Futboleko noraino heltzea gustatuko litzaizuke?

- Nire ametsa jokalariek gazte guztiok ametsa da, lehen mailan jokatzeko. Ametsa errealitate bihurtuko zaidan ezin dut esan baina horrela izateko ahalegin guztiak egingo ditut.

- Futbolaz gain, zeintzuk dira zure hobbyak?

- Pilotan, zetan eta palan jokatu, irakurri eta zainera joan.

Imanol Etxeberriak lau ezaugarri garrantzitsu ditu: atezain segurua da, goitik primeran dabil, kokapen bikaina du eta sake indartsua.

Eskubaloi eta saskibaloikoak aurrendenboraldia hasteko gertu

Urbina Maltzaga saskibaloi taldeak dagoneko erdi osatu du EBA Ligako taldea. Iaztik bost baja izango dira: Gerardo Mondragon, Igor Urizabel, Iñigo Pastor, Aitor Saez de Viteri eta Jabier Otxoa. Bestalde, Joserra Garai, Alvaro Coca, Jorge Fernandez eta Iñaki Arruek beste urte beteko kontratua sinatu dute.

Basconia Taugres taldeetik lau jokalarierorriko dira Arrasatera: Juan Pedro Cazorla, kanariarra, 19 urte ditu eta 1,88 metroko altuera, base postuan jokatuko du. Juan Pedro Estatuko junior selekzioarekin Europako txapelketan parte hartzen ari da Grecian. Pedro Rodriguez, Badajozekoa, 21 urte ditu eta 2,04 altuera, hegalekoa da. Iñaki Gomez, Alicantekoa, 21 urte, 2 metro eta eskolta. Jorge Garbajosa, pibota, 18 urte ditu 2.06 altuera eta madrildarra da.

Jokalarier atzerritarra ere izango da taldean. Itxura guztien arabera amerikar batek beteko du David Scotten lekua



Saskibaloian arpegi berriak izango dira

eta une honetan bi jokalarirekin jarri dira harremanetan: Mike Brown eta Dairus Hall. Bien artean egon daiteke Urbina Maltzaga taldeko jokalarier atzerritarra baina oraindik taldeko ordezkariak ez dute erabaki nor izango den, tramiteak ondo betetzen badira datoren asterako egon daiteke erabakita. EBA ligako jokalarier abuztuaren batean hasiko dira entrenatzen eta hila-bete osoa goiz eta arratsaldez arituko dira.



Eskubaloikoek abuztuaren 21a arte jai izango dute.

Eskubaloian aldaketarik ez

Eskubaloiko lehen mailako taldeari dagokionez, datoren denboraldiari begira baja bakarra egongo da. Mikel Ajak utziko du taldea. Gai-nontzekoek Arrasateko taldean jarraituko dute beste urte betez. Entrenatzaile azken urteetan bezala Imanol Alvarez izango da. Eskubaloiko taldekoak abuztuaren 21an hasiko dira aurrendenboraldia prestatzen. Aurten lehen maila

hiru taldetan banatu da eta arrasatearren aurkariak Zarautz, Ereintza, Valle de Trapaga, Santanderko Clubasa, Avilesa, Bejarano, Hormigones Vigo eta Club Deportivo Lalin izango dira.

Lehen territorial, jubeniil eta kadete taldeetan gauzak bere horretan jarraituko dute. Lehen territorialeko entrenatzailea Faustino Gorostiza izango da, Jubenilena Bernardo Balerdi eta kadeteena Jesus Mari Herrero.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Iñaki Bruñas

Perkusioarekin maitemindua

Arrasatear, lesakar, bergarar, galiziar batek eta bi ingelesek osatzen dute sortu berri den "Dumbaka" perkusio taldea. Dantzarako erritmoak egiten dituzte mundu osoko instrumentuak nahastuz eta jendea euren doinura oraindik ohitu ez den arren, helburua jotzen dutenarekin disfrutatzeari esaten du arrasatear honek

— Nahiko talde "internazionala" zarete. Nola ezagutu zineten eta nola sortu zen taldea?

— Duela lau edo bost urte ezagutu genuen elkar ikastaro batzutan. Ikastaro horietan perkusioa ikasten genuen baina helburua indio amerikarren kulturaren sustraiak ezagutzeari zena. Indio amerikarrak bizi ziren etxeetan bizi izan ginen ikastaroan zehar, "Tipi" izeneko denda tipikoetan. Gero, taldea sortzeko ideia bururatu zitzaidan, musikak erabat erakartzen nauelako.

— Zuk non ikasi zenuen perkusio instrumentuak jotzen?

— Intuizioz ikasi nuen, nik neuk bakarrik. Ez dakit nola esan... musika barruan daukat eta berez ateratzen zait. Musika egiten ezin dela ikasi uste dut, musikari bat musikari jaiotzen da. Nahiz eta ikastaro batzuk egin, autodidakta hutsa naiz.

— Zein instrumentu jotzen dituzue?

— Perkusio instrumentuekin batera beste batzuk ere jotzen ditugu,



perkusioarekin bakarrik zaila delako doinu bat ateratzeari. Danbor klasikoa, txalaparta, kastañuelak eta era horretako instrumentuetan gain beste batzuk erabiltzen ditugu: danbor afrikarrak, arabiarak, kubarrak, marakak, kanpaiak, "dijeridu" izeneko instrumentu australiarra, harpa antzeko bat, baxua, flauta...

— Zuk zeuk zer jotzen duzu?

— Edozein perkusio instrumentu.

— Emanaldi batean zenbat instrumentu erabiltzen dituzue?

— Bakoitzak bat, beraz, guztira sei, baina aldatu egiten ditugu... hau da, guk ez ditugu doinu edo abesti konkretuak sortzen, egitura musikal bat egiten dugu eta gero inprobisatu. Bakoitzak, momentu horretan daukan animoaren arabera, nahi duen moduan moldatzen du egitura musikal hori.

— Euskal Herri mailan perkusio talde asko dago?

— Badaude baina ez

asko. Dena dela, perkusioa indarra hartzen ari dela uste dut. Perkusioa taldearen oinarritzat hartuz, talde asko sortzen ari da, nahiz eta gero beste instrumentu modernoagoak erabili. Perkusioa terapiatzat erabiltzen da ere.

— Zuen konposizioek badute letrarik?

— Guk egin ditugun egitura musikalek ez dute letrarik, baina "Prana" izeneko taldearen doinu batzuk hartu eta letrekin abestu ditugu.

— Diskarik ateratzeko asmorik?

— Niri asko gustatuko litzaidake baina konprometuzko asko ditut eta ezin dut; semeak, lana, emaztea haurdun... Ez dakit, maketa bat ateratzeko prestatuta gaudela uste dut.

— Inguruan egin dituzuen emanaldietan ze harrera izan du taldeak?

— Harrera ona. Gure musika dantza egitekoa da, beraz, gustora entzuten dena. Adibidez, samba jotzen dugu, baita afrikar erritmoko doinuak eta musika mistikoa ere... gertatzen dena zera da, jendeak ez duela rock musikaz aparte gauza handirik ezagutzen. Lau folk talde ingeles ezagutzen dituzte baina gauza gehiago ez...

— Agian jendearengan hezkuntza musikal berri bat zabaldu beharko duzue...

— Bai, gustatuko litzaiguke baina gure helburu nagusia gustatzen zaiguna jotzea eta ondo pasatzea da.

.....

"Dumbaka taldean ez ditugu doinu edo abesti konkretuak sortzen, egestura musikal bat egiten dugu eta gero inprobisatu"



Takolo Autoak-en
ERRAZ JARRI DIZUGU!

Oporretan bidai seguru eta ahaztezina izan dezazun.



Opor ederrak pasatu!

APROBETXA ZAITEZ UZTAILEKO ESKAIN'TZA PAREGABEAZ!

ZURE OPEL VECTRA BERRIA ORAIN...

2.350.000

pta.tik aurrera

Goza ezazu uda hontan bere erosotasunaz eta segurtasunaz gain bere prezioaz.

3 URTEKO GARANTIAZ!



OPEL

ZURE ZAIN GAUDE

TAKOLO

A U T O A K

Araba Etorbidea, 3 (ESKATU pabilioia)

Tfnoa: 79 05 86 **ARRASATE**

Zerbitzu Ofiziala ARRASATEN

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.

OPEL VECTRA

J

an Juanetako txirrindulari lasterketaren ondoren Biteriko jardinetan atera zuten erretratu hau 1945eko ekainaren 25ean. San Juanetako sari nagusian parte hartu eta irabazi egin zuen Fabian Etxebarria "Montxon"ek eta bere kuadrilak besoetan zuela egin zuten argazkia. Atzealdean San Juanetako tantaixa zeukaten, urte hartan lagun talde horrek jaso zuen eta. Baztargain arrotik ekarri zuten gauzez ostuta.

Txirrindulari frogari buruz, bailara guztiko zortzi-hamarren bat lagunek hartu zuten parte. Montxonek saria (kopa eta hamar duro eta "frentes y juventud" jartzen zuen domina) eta tabernen primak, bi likore botila irabazi zituen. Lasterketaren ibilbidea herriko kaleetan zehar izan zen. Oraingo Sebero Altube plazatik irten (orduan General Mola zen), Uribetik, Iturripetik Arrasatera, San Jose ikastetxetik eskaileretara, Portaletik zehar, Zaldibartik eta Etxe txikietatik zehar, Ferixalekura eta handik



Seberotik tren geltokian izan zuten helmuga. Fabian Etxebarriak 18 urte zituen karrera hartan korritu zuenean eta Orbea zahar batekin egin zuen karrera, bizikleta astun-astun batekin. Orduan ez zegoen

gaurko erraztasunik. Erretratuan, lagunen bizkarrean **Fabian Etxebarria "Montxon"**. Zutik ezkerretik hasita, **Pedro Uribesalgo, Paulino Sagasta "Olandixo", Jabier Arregi "Kataide",**

Jose Antonio Gallastegi "Intxausti" eta **Juan Izarzelaia "Amerikano"**. Makurtuta, **Juan Iribecampos "Popillo", Bixente Arregi "Axeri", Julio Gallastegi** eta **Agustin Akizu "Boliñete"**.

Arreta
handiko sukaldea

UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra


Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

Koldo Espinosa

“Lizarra” tabernako jabea



- **Duela gutxi arte, sinisten zenuen zortean?** Bai, hirutan jaso baitut loteria edo ONCEko sariak.
- **Zer egingo duzu diruarekin?** Errioxan etxea erosi dut eta prestamoa ordaintzeko erabiliko dut dirua.
- **Zure semeari bizikleta erosiko ei diozu...** Bai, hori ere egingo dut.
- **Esaten da diruak ez duela zoriontasunik ematen. Zer diozu?** Ba... zoriontsu izaten asko laguntzen duela.
- **Pizina ala hondartza?** Hondartza.
- **Musika talde bat?** Mecano.
- **Ibiltzen zara txikiteoan?** Ez.
- **Egon zinen Julio Iglesiasen kontzertuan?** Ez.
- **Zure defekturik handiena?** Lotsatia naiz.
- **Erosi duzu arroparik beherapenetan?** Ez.
- **Biziorik?** Ez.
- **Non ibiltzen zara martxan?** Errioxan, Haro eta Santo Domingo aldean.
- **Nori idatzi zenion azken gutuna?** Nire neska lagunari soldaduzkan nengoela.
- **Egun batez Arrasateko Alkate bazina, zer konpontzen ahaleginduko zinake?** Kaleko delinkuentzia.
- **Ze edari eskatzen da gehien tabernan?** Kafea.
- **Noiztik bizarra?** Badira 10 urte.
- **Mozteko asmorik?** Ez, emazteak ez dit uzten eta.
- **Jokuan zortea duenak ez omen du amodioan zorterik...** Ez dakit, nik ez daukat maitasun arazorik.
- **Erosten duzu aldizkari konkreturik?** “ANDE” aldizkariaren bazkidea naiz. Elbarrituen aldizkari bat da eta horixe irakurtzen dut.
- **Zure ametsetako bidaia?** Brasilgo irlak.

JAIAK

Inguruko festak


Hilabete honetan zehar eta abuztuan, inguruko herri eta auzo askotan jaiak ospatuko dira.

Gertuen ditugun jaiak Maalako Arrabalekoak dira, uztailaren 22an eta 23an. Ume jolasak, txokolatada, trikiti-xa, dantzaldia, afaria, meza eta jubilatuentzat luntxa izango da egun horietan.

Astebete beranduago Ferrerias kalekoak egingo dira, uztailaren 26an hain zuzen. Txistularien kalejira, haur jolasak, meza, herri poteoa, herri afaria eta gaueko dantzaldia izango dira besteak beste.

Abuztuan berriz, 3an, San Estebanak izango dira Udalan; 15ean Andra Mariak Aretxabaletan eta 24, 25 eta 26an Bartolome Deunaren jaiak burutuko dira Uribarri auzoan: pilota partiduak, bertso saioak, erromeriak, mus txapelketa, auzo bazkaria eta bolo txapelketa izango dira beste ekintza batzuen artean. Abuztuan ere, 25, 26 eta 27an “Kofraixak” ospatuko dira Arrasatek gertu, Bergarako Osintxun hain zuzen.

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa

ARETXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

Ikerne Heriz
Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian

Abuztuko 11ra arte zabalik.
Goizez 9etatik 1ak arte.


- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoak
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betile iraunkorrak

• ESAERA •

Bidaiatu egin behar da,
esana dut lehen ere,
topofobiaz, toki bakoitzatik
ihes egiteko, ez joango zaren
hura aurkitzeko, abiatzen
zaren horretatik ihes eginez
baizik”

UNAMUNO

• JEROGLIFIKOA •



Fruta gorri-gorria.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						
		9			10	
11	12			13		
14				15		
16			17			
18						19

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Baimena eman. 8. Xabier, San Andres Herri Eskolako zuzendaria. 9. Gipuzkoako udalerrian. 10. Euskal atzizki femeninoa. 11. Ukituz gero hezkura ematen duen landarea. 13. Zuek eta nik. 14. Uste izan. 16. Haur. 17. (Ald.) Sarri, askotan. 18. Zein tokitako. 19. Neona.

Bertikalak 1. Elkartasun. 2. Sexu maskulinoa duen animalia. 3. Irautearen ekintza eta ondorioa. 4. Mendiska. 5. Hitzak lotzen dituen juntagailua. 6. Neu. 7. Usoaren kumea. 10. Suak harturik, garretan. 12. Borroka japoniarren modalitatea. 13. Substantzia, materiala. 15. (Ald.) Ordezko Zerbitzu Soziala.

• HOROSKOPOA •

Aries Zure bizitza anekdota txiki-kin beteta dago. Konta itzazu!

Taurus Etxekoen jokabideak zer pentsatu ematen dizu. Ez arduratu.

Gemini Edozein gauzatarako sekulako trebetasuna duzu.

Cancer Benetan orrazkera bitxia zurea. Ez dizute ba, Tximak deituko?

Leo Zezenari adarretatik heldu eta aurrera!

Virgo Hipnotizatuta zaudela esan dai-teke. Zertan pentsatzen duzu?

Libra Ez hemen geratu, abuztuan eguraldi txarra egingo du eta.

Scorpio Ez zaude sokamuturrean korrika ibiltzeko moduan. Urteak aurrera doaz.

Sagitarium Honelakoa zara: hizketan aditua eta aditzen gorra.

Capricorn Une hunkigarriak bizi izango dituzu udara honetan.

Aquarius Toki guztiétan egon behar horrek ez dizu mesederik egiten.

Piscis Sentimenduei beharrean, emozioei egin behar zaie jaramon.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.


Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: **CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

TELEBISTAREN TXOKOA



Elkarte gastronomikoetako epaimahaia

ATBk elkartei eskaniko dien programaren barruan sukaldaritzan lehiaketa bat ere bada, eta normala denez lehiaketa epaitzeko jendea behar, elkarte bakoitzak prestatzen duen janaria dastatu eta erabaki bat hartuko duena. Kasu hone-

tan Aitziber Retolaza eta Bixente Pagoagak osatzen dute aipatu epaimahaia. Dakizueenez, programa osatzen duten 20 elkarteak 6 taldetan banatuta daude eta bakoitzetik finalista bat geratuko da. Finala datorren urteko jaien barruan izango da seguruen.

KOMIKIA



PROGRAMAZIOA



ATB OPORRETAN!

ATBko lankideei oporrak heldu zaizkigu ere, beraz, abuztuaren 28ra arte ez gaituzu pantailan aurkituko. Dena dela jakin ezazu urrirako programazio berria prestatu dugula eta horrekin batera, hainbat aurpegi berri ere ezagutuko duzula. Irailean informatiboak eta HABEko "Bai horixe!" euskera programak emititzen jarraituko dugu eta esan bezela, urriaren programazio berriari emango diogu hasiera. Baietz ATB aldatuta aurkitu oporretatik bueltan!

SOLUZIOAK

Jeroglifkoa:
Marrubia.

15. SZO.
kume. 10. Sutan. 12. Sumo. 13. Gal.
pen. 4. Mutno. 5. Eia. 6. Ni. 7. Usa-
Bertakak: 1. Batasun. 2. Ar. 3. Iran-
Nongo. 19. Ne.
14. Suposat. 16. Urte. 17. Ziam. 18.
ti. 9. Aia. 10. Sa. 11. Asun. 13. Guk.
Horizontalak: 1. Baimendu. 8. Aru-

HIES EKIMENA

Asteléhen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Tallerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

OLIVEROS DOKTOREA PSIKIATRA

Irailetik aurrera kontsulta beste
toki batera pasatuko da.

Helbide berria:

CONSULTORIO MEDICO OLARTE
Olarte kalea, 43 behea
Tfnoak: 79 81 00 / 79 81 11
Arrasate

Etxebizitzak

• **Pisua osatzeko bi pertsona behar dira** Donostian Amara auzoan. Dei egin 47 02 32 tfnoara gaez. Miren.

• **Santa Polan bungalow-a eta Torreviejan apartamentua alokatzen da** hamabostaldika edo hileka, hondartzatik gertu dago, abuztuan eta irailuan. Tfnoa: 77 13 26.

• **Bi oheko gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.

• **Neska gazte eta erantzuleak** sukaldea erabiltzeko aukera duen logela alokatuko luke edota pisu bat konpartituko. Tfnoa: 77 00 16. Rosa. Gaueko 8etatik 10etara.

• **Beha solairua alokatzen da** Grupo San Juanen medikuen kontsulta edota profesionalendako. Dei egin gaez 79 14 29 tfnoara.

• **Neska bat behar da** pisua osatzeko irailetik aurrera. Tfnoak.: uztailan deituz gero 79 11 85, abuztuan 74 13 38.

• **Etxea salgai Aretxabaletan,** 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Altzari guztiekin. Prezio interesgarria. Dei egin gaez 79 67 26 tfnoara.

Lana

• **Uztailean klase partikularrak;** Ingelesa, euskara, EGB. Esperientzia eta talde txikiak. Tfnoa: 79 28 80.

• **Bizikleta mekanikari kanadiarra,** bizikletak konpontzeko prest. Tfnoa: 79 97 38.

• **Klase partikularrak ematen dira** uztailean, euskaraz nahiz erdaraz. UBI mailara arte edozein arlo. Tfnoa: 79 4675 / 79 23 36. Amaia.

• **Uztailean ingelesezko klase** partikularrak ematen dira. Tfnoa: 76 07 87. Arantza.

• **Neska prest garbiketarako egiteko.** Tfnoa: 79 37 68.

• **2. REMeko klase partikularrak nahi dituzte** uztaila eta abuztuan. Interesatuok dein egin 79 71 33.

• **Informatikako ikasleak udan** OHOk klaseak emango lituzke. Tfnoa: 79 34 58.

• **Frantseseko klaseak ematen dira.** Tfnoa: 79 27 06.

• **Injeneritzako kimikako klaseak jasoko** nituzke abuztuan. Tfnoa: 79 47 77. Xabier.

• **Emakume erizain laguntzaileak** pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 34 53.

• **Injineritzako ikasleak** matematika eta marrazketako klaseak emango nituzke. Tfnoa: 79 16 19 (Astelenehenetik ostiralera) eta 19 27 16 (Asteburutan). Valen.

• **Gazte kanadiar batek ingelesko praktikako klaseak** emango lituzke. Dei egin 79 97 38 tfnoara.

• **Neska batek goizetan** umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 68 18. Nerea.

• **Ile apaintetan diplomatu gaztea** abuztutik aurrera lan egiteko prest. Tfnoa: 79 63 18. Rosa.

• **Emakume euskalduna umeak** edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 07 73.

• **Neska bat behar da** domeketan denda baten lana egiteko. Kotxea beharrezkoa da. Tfnoa: 79 47 85. Emilio.

• **Irakasle batek ingeles, OHO, REM 1 eta 2, maila, COU(letrak) klaseak** ematen ditu abuztuan. Tfnoa: 79 68 18.

• **Neska gaztea** taberna, jatetxe edo denda batean lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 38. Leire.

• **OHOk klase partikularrak** emango nituzke udan. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 97 38. Leire.

Salerosketak

• **Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke.** Dei egin arratsalde 77 04 98 tfnoara.

• **Kitarrako klaseak hartuko nituzke** uztailean. Tfnoa: 79 20 24.

• **Ingelesezko klase partikularrak ematen dira.** Dei egin 5etatik 9etara 79 22 86 tfnoara.

• **XR-2, SS-Y kotxea saltzen da.** Zuri kolorekoa eta egoera onean dago. Tfnoa: 71 42 14.

• **44-45 zenbakiko Doctor Martens** botak salgai. Beltzak dira, 10 zulodunak. Tfnoa: 79 97 38. Bob.

• **Suzuki deskapoteblea** (kapota gogorra) salgai. 5 abiadura. Tfnoa: 79 03 17.

• **GAC motor txikia** prezio onean salgai. Tfnoa: 79 81 70. Ordu 2etatik 5etra.

• **Bigarren eskuko soinua erosiko nuke.** Tfnoa: 79 12 70

Denetarik

• **Graduatutako betaurreko metalikoak galdu zaizkit** funda beltz batekin autobus geltokian edo inguruan. Tfnoa: 79 99 03.

• **Zilarrezko pultsera harri berdeekin galdu** nuen San Juanetan. Aurkitu baduzu dei egin 76 29 96 edo 76 19 65 tfnoara.

• **Urrezko eraztun bat galdu nuen** San Juanetan Santamainako aldapan (Kanposanturen parean). Tfnoa: 79 91 77.

• **Ume pultsera bat galdu da** ekainaren 10eko asteburuan. Tfnoa: 79 70 89.

• **Kaixo "Pasteles"!** Besarkada bat Marian-en partez Arrasatetik. Laster gure artean egongo zarela espero dut..

Aste Gazte

Lana

• Sestaoko Udalak, administrari laguntzaile hiru lanpostu kaleratu ditu. LHI edo eskola graduatua izatea eskatzen da. Epea: abuztuak 1.

• Nafarroako Elkarte Foralaren Administrazioak, administrari laguntzaile 42 lanpostu deitu ditu, hauek 8 euskaraz. Epea: uztailak 28.

• "Uliazpi Fundazioak" 12 elbarritu laguntzaile lanpostu kaleratu ditu. Klinika laguntzailea edo goi mailako batxilergoa izatea eskatzen da. Epea: uztailak 25.

Bekak

• Bergarako Udalak "Justo Garate Arrjola" Soziologiari buruzko ikerketa-beka deitu du. Ikerketa lana euskaraz burutuko da. Iraupena 11 hilabetekoa izango da. Diplomatuak edo maila bereko titulodunei zuzenduta dago. Epea: irailak 30.

• "Mutis Programak" deiturik, espezializazio ikasketak; doktoregoak eta maistriak egiteko hainbat beka deitu du arlo ezberdinetan (elikadura, genetik, agronomia...). Epea: uztailak 30.

Lehiaketak

• "Gazteok bizikletan" VI Argazki Lehiaketa. Bi kategoria: a) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak; b) 19-35 urte bitarteko edozein. Zuribeltz zein koloretan, gehienez, 3 argazki. Epea: urriak 11.

• Urretxu eta Zumarragako "Argazki Lehiaketa". Nahi duten zaletu guztiek har dezakete parte. Gaia eta egiteko modua egilearen aukeran egongo dira. Koloretan zein zuribeltzean. Epea: irailak 22.

"Gaur egun (duela bost edo hamabost urte ez bezala) edozein mutil ikusten da kalean "Marca" kirol-jurnalaren eskuan daramala. Jendea astapitotzen ez ote den ari. Edo jendea astapitotzen denean, edozer gerta dciteke."

PABLO SASTRE. IDAZLEA



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

Zuk eraman ... egingo duzu!



*Jose Aranzabal-ek
zure erosketak plazoka
ordaintzeko txartel bat eskaintzen dizu.*

ELEKTRAGAILUAK


Iturriotz, 15 • Tfnoa: 79 15 16

SUKALDE ALTZARIAK


Bañez Doktoea, 2 • Tfnoa: 79 18 92

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



FAGOR 



Gure ezberdintasuna

Gure sukalde altzarien edertasuna eta diseinua base sendo batetan oinarritzen dira.

- Sukalde batek bizitza osoa irauteko eginda egon behar dela dakigulako.
- Etxeko altzarien artean traturik gogorrena daukatela dakigulako.
- Estetikaz gain, iraunkortasuna eta praktikotasuna bilatzen dela ziur gaudelako.
- Guzti hau zure beharretara egokitzeko zerbitzu onena merezi duzula.

Haxe da gure ezberdintasuna: edertasuna iraunkorrago egitea, gogorra ederrago egitea. **BETIRAKO.**

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42